

AURKEZPENA

Lan Harremanak aldizkariaren ale honetan «Gizarteratzea eta Enplegu Politikak» gaia hautatzea azkeneko aldizkarian landu zen «Krisiaren eraginak arlo soziolaboralean» gaiaren ondotik dator. Espainiako Erresumako Gizarteratzeko Ekintza Plan Nazionalak (2008-2010) adierazten duenez, gizarteratzea indartzeko funtsezkoa da kalitatezko enplegua garatzea eta sustatzea, baita errenten alorreko politika egokia eta gizarte-zerbitzuen laguntza izatea ere, gizarte-bazterketako arriskutik irten ahal izateko. Halere, zalantzazkoa da baldintza horiek betetzen ari direla esatea, eta, zehazki, etorkizun hurbilean beteko direla esatea. Alabaina, Europar Batasunak flexisegurtasunaren politika eta estrategia sortu zuen, eta estatukideek egin zitekeen bertsiorik okerrena hartu zuten —aldizkari honetako 16. zenbakian aztertu zen—. Izan ere, malgutasuna kostatzen ahala kostatzen erabiltzen zuen, eta egokitze fiskalaren eta gastu publiko soziala murriztearen arloko politikaz baliatzen zen. Politika eta estrategia horiek, ordea, kontraesanetan daude kalitatezko enpleguarekin, eta baztertuta dauden pertsonak laneratzea zailtzen dute.

Bestalde, azken urteetan abian jarri den aktibatze-estrategia, hein handi batean *workfare* doktrinan inspiratzen dena, ez da aktibatze orokor positibo bat bihurtu, babesteko neurrien, lana bilatzearen eta banan-banako laneratze-ibilbideen bitartez. Aldiz, neurri behartzaile eta zigortzaileak ezarri dira, lana bilatzeko sustagarriak ez izatea saihesteko, eta, paraleloki, langabezia daudenak lanera itzultzera bultzatzeko suspengarriak ezarri dira (García Serrano, 2007).

2000. urteko Lisboako Estrategiak, politika pasiboen ordez, politika aktiboak sendotzea ekarri zuen, besteak beste; eta, Espainian, honako alderdi hauek adierazi dira politika horiek: gizarteratzeko errenta aktiboak sortzean; langabeziako laguntzen aktibazio-irizpidea sendotzean; langabezia zein lanean dauden pertsonen prestakuntza okupazionala eta jarraitua zabaltzean; enplegu zerbitzu publikoari arreta handiagoa jartzean; eta, kontratazioak egiteko, enpresei diru-laguntzak edo hobariak ematean (Rodríguez Cabrero, 2009). Aldaketa horrek gastu publikoa handitzea ekarri du politika aktiboetan. Hala ere, zenbait elementutan kontzentratu da, eta horien eraginkortasuna zalantzazkoa da enplegu-kalitatearen helburuaren ikuspuntutik; alegia, lehen aipatutako kontratazioak

egiteko diru-laguntzen politika. Aitzitik, gastua askoz ere murriztuagoa izan da prestakuntza okupazionalan eta enpleguaren zerbitzu publikoetan.

Lan Harremanak zenbaki honetako Gaien Atalean sartutako bi artikuluk laneratzeko politikaren baldintzatzaileak aztertzen dituzte. Lehenengo artikuluan, G. Ramos Trucherok, A. Negro Machok, M.C. Merino Llorentek eta N. Somarriba Arechavalak enplegu-kalitatearen gaia aztertzen dute. Horretarako, enplegu bat kalitatezko enplegu gisa jotzeko kontuan hartzen diren elementuak aztertu dituzte, lan-kalitatearen adierazle sintetiko bat eginez. Azken horrek, 23 adierazle objektibo eta subjektibo jasotzen ditu, lanpostuaren barne- eta kanpo-baldintzei buruzkoak, eta hainbat iturritatik jasotako datuei aplikatzen dizkiete. Lortutako emaitzek lanaren kalitatean aldagarri eta dimentsio bakoitzak duen funtzioa adierazten dute; baita Europako hainbat herrialdek horri buruz duten jarrera ere. Bigarren artikuluan, Mari Luz de la Cal eta Mikel de la Fuente jaun-andreek hainbat alderdi aztertzen dituzte, modu kritikoa, hala nola: Europako Batasunak sustatutako gizarteratze aktiboaren estrategiak; horiek flexisegurtasunaren estrategiarekin eta politikarekin duten harremana; eta atzeraldi-mehatxuekin duten zerikusia, hots, Europar Batasunak eta Espainiako Estatuak sustatutako gastu publiko soziala murrizteko eta lan-erreforma prekarizatzaileak sortzeko politiketatik eratorritakoarekin duten harremana.

Beste bi artikulua gizarteratze-politiken esperientziei buruzkoak dira. Vanesa Fuertes, Ronald McQuaid eta Sue Bond jaun-andreek Eskoziako Gobernuak lau urtez egindako ekimen baten emaitzak eta oztopoak ikertu dituzte. Txirotasunari aurre egiteko ekimena zen, horretarako haurrak zaindu behar zizuten gizarte-egoera ahuleko gurasoen enplegu-tasak eta jarduera ekonomikoa areagotuz. Rubén Díez jaunak, berriz, inkesta batean oinarrituta, kartzelan egon ondoren drogomenpekotasuna duten pertsonen laneratzeko eta gizarteratze-prozesuak aztertu ditu; haien profil sozioprofesionalari buruzko, eta laneratzeko eta gizarteratze-jardueretan zuten parte hartzeari buruzko inkesta baten bitartez.

Lan Harremanak aldizkariko ale honetako Atal Irekia bereziki zabala eta asotarikoa da. Bertako lehenengo artikuluan, Esteban Antxustegi jaunak Alfred Marshall jaunaren herritar sozialen kontzeptuari buruz gogoeta egiten du, baita horrek eskubide zibilekin eta politikoekin duen harremanari buruz ere. Horretarako, eskubide sozialen beharra nabarmentzen du, norbanakoaren autonomiarentzat, eta herritarren errealitatea azpimarratzen du, estatus zibil eta politiko gisa.

Ondoren, hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloei buruzko bi artikulua daude. Artikuluetako bat Ana Regidor andreak egin du, eta, bertan, unibertsitateko irakaskuntzak Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua izeneko proiektura egokitzetik eratorritako hainbat gai aztertzen ditu. Esparru horrek aldatuta sakona ekarri die ikasketei eta tituluei; beraz, unibertsitatearen erakundeari eta gaur egungo eta etorkizuneko unibertsitateko tituludunei modu garrantzitsuan eragin die. Bereziki, prozesu hori eta 2007ko Langile Publikoen

Oinarrizko Estatutua elkartzean sortutako disfuntzioak modu kritikoan jasotzen ditu. Eguzki Urteagak hainbat gai azaldu ditu, esaterako: lanbide-heziketaren sistemak Frantzian duen egoera; enplegu-emaileek sistema hori kudeatzeko eta finantzatzeko duten parte-hartzea eta botere publikoak, eta alderdi sozialen negoziazioan duten tratamendua. Sistemaren berdintasun izaera oso eskasa dela azpimarratzen du, ez baitio laguntzen haren onuradunak sustatzeari; eta azkeneko erreformek ez baitute errealitate hori zuzendu.

Azken artikuluan, Félix Gerenabarrenak krisi ekonomikoen arrazoiak aztertzen ditu, mikroerabakien eta politika makroekonomikoen eragin bikoitzaren ikuspegitik, horiek enpleguaren degradazioa eta langileak txirotzea ekarri baitute.

MIKEL DE LA FUENTE LAVÍN
Lan Harremanak aldizkariaren zuzendaria